



FUNDACIÓN ONKOLOGIKOA FUNDAZIOAREN ESTATUTUAK

FUNDACION ONKOLOGIKOA FUNDAZIOAREN ESTATUTUAK

AURKIBIDEA

I. TITULUA.....	4
XEDAPEN OROKORRAK	4
1. artikulua. Izena eta iraupena	4
2. artikulua. Erregimen juridikoa, nortasuna eta ahalmen juridikoa	4
3. artikulua. Fundazioaren helburuak.....	4
4. artikulua. Helburuen garapena	5
Fundazioak bere helburuak nahi duen bezala garatu ahal izango ditu, eta beste erakunde edo organizazio batzuetan parte hartu ahal izango du, eta Fundazioaren gutunaren, Estatutu hauen edo, edozein kasutan ere, Legeen ondoriozko mugak besterik ez ditu izango....	5
5. artikulua. Helbidea	5
6. artikulua. Lurralde eremua	5
7. artikulua. Onuradunak	5
8. artikulua. Publizitatea	6
II. TITULUA	6
PATRONATUA.....	6
1. kapitulua- Osaera eta eskumenak	6
9. artikulua. Patronatua	6
10. artikulua. Osaera eta iraupena	6
11. artikulua. Patronoak izendatzea eta kargu hutsak estaltzea	6
12. artikulua. Doakotasuna.....	7
13. artikulua. Fundazioaren Lehendakaritza.....	7
14. artikulua. Lehendakariordetza	8
15. artikulua. Idazkaritza.....	8
16. artikulua. Zuzendaritza Kudeatzailea	8
17. artikulua. Fundazioaren zerbitzura dauden bestelako langileak.....	9
18. artikulua. Patronatuaren eskumenak	9
19. artikulua.- Delegazioak, ahalordetzeak, Batzorde Delegatuak eta Ohorezko Patronoa.....	10
20. artikulua. Patronatuaren betebeharrak	11
21. artikulua. Autokontratazioaren debekua.....	11
22. artikulua. Erantzukizuna.....	11
2. kapitulua. Patronatuaren funtzionamendu-erregimena.....	12
23. artikulua. Barne-funtzionamendua.....	12
24. artikulua. Eratzea eta erabakiak hartzea.....	13
III. TITULUA.....	14
ONDAREA ETA ERREGIMEN EKONOMIKOA 14	
1. kapitulua. Osaera, administrazioa eta zaintza.....	14
25. artikulua. Fundazioaren ondarea	14
26. artikulua. Baliabideak	14
27. artikulua. Fundazioaren Ondarearen zaintza.....	14

2. kapitulua- Erregimen ekonomikoa.....	15
28. artikulua. Ekitaldi ekonomikoa.....	15
29. artikulua. Betebehar ekonomikoak eta kontabilitate-betebeharrak.....	15
30. artikulua. Kontuak ematea.....	15
3. kapitulua - Fundazioaren helburua lortzeko baliabideak aplikatzeko arauak.	15
31. artikulua. Administrazioko diru-sarrera eta gastuen zertarakoa.....	15
32. artikulua. Kontu-auditoria	16
IV. TITULUA	16
ALDAKETA, FUSIOA ETA AZKENTZEA	16
33. artikulua. Aldaketa	16
34. artikulua. Fusioa.....	16
35. artikulua. Azkentzea	16
36. artikulua. Azkentze-prozedura.....	17
37. artikulua. Likidazioa	17
V. TITULUA.....	17
BABESLETZA ETA FUNDAZIOEN ERREGISTROA	17
38. artikulua. Babesletza	17
39. artikulua. Fundazioen Erregistroa	17
VI. TITULUA	17
FUNDAZIOAREN LAGUNTZAILEEN ERREGIMEN JURIDIKOA	17
40. artikulua. Erakunde Laguntzaileak.....	17

FUNDACION ONKOLOGIKOA FUNDAZIOAREN **ESTATUTUAK**

I. TITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Izena eta iraupena

Fundación ONKOLOGIKOA Fundazioa izenarekin fundazio bat eratzen da indarrean dagoen araudiaren arabera.

Fundación ONKOLOGIKOA Fundazioa irabazi-asmorik gabe eratutako erakundea da, eta bere hartzekodunen borondatez, Estatutu hauen 3. artikuluan deskribatzen diren interes orokorreko helburuak egiteko baliatuko du betiere bere ondarea.

2. artikulua. Erregimen juridikoa, nortasuna eta ahalmen juridikoa

Eraketa-eskritura Fundazioen Erregistroan erregistratzen denetik aurrera, Fundazioak nortasun juridikoa eta independentea edukiko du, baita erabateko ahalmena ere, hala maila juridikoan, nola jardutekoan, Estatutu hauetan, eta fundazioaren egintzan sortzaileen borondate-adierazpenean ezarritako mugak besterik ez ditu izango eta, nolana ere, aplikatuko diren legezko xedapenetan ezarritakoak.

Hortaz, Babesletzari egindako dagozkion jakinarazpenak aparte utzi gabe, honako egintza hauek egin ahal izango ditu: edozein bide erabiliz edozein motatako ondasun higigarriak edo higiezinak eta eskubideak lortu, kontserbatu, eduki, baliatu, besterendu, eta zergapetu; edozein motatako egintzak edo kontratuak egin; maileguak jaso eta ordaindu; gobernu-bidera edo auzibidera jo Epaitegien, Auzitegien, eta Erakunde publiko zein pribatuen aurrean edozein motatako ekintzak eta salbuespenak egin, antolamendu juridikoan ezarritakoari lotuta.

3. artikulua. Fundazioaren helburuak.

Honako xede hau du ONKOLOGIKOA Fundazioak: Herritarren bizi-kalitatearen eta osasunaren hobekuntza sustatzea, jatorri onkologikoa duten gaixotasunen prebentzio, diagnostiko eta tratamenduan kalitatezko eta espezializatutako osasun-zerbitzu emanda.

Helburu zabal horien barnean, honako hauek izango dira jarduera zehatz garrantzitsuenak eta berehalakoak, adibide gisa adierazitakoak:

- 1) Minbiziaren prebentzio, diagnostiko eta tratamendurako zentro bat ezartzea, haren egitura funtzionala diziplina anitzeko unitate funtzionaletan oinarrituta. Zerbitzu onkologiko espezifikoez osatuko dira unitate horiek, eta, horiez gain, eraginpeko arloari dagozkion espezialitate medikoek ere izango dute tokia, paziente bakoitzari plan terapeutiko bat eskaini ahal izateko.
- 2) Zentro horren bidez edozein patologia medikoren prebentzio, diagnostiko eta tratamenduaren arloan zerbitzu teknologikoki aurreratuenak ematea, minbiziari dagokionez bereziki.

- 3) Ikerketa zientifiko oinarritzko eta aplikatua biomedikuntza-arloan, gaixotasun onkologikoen alorrera bideratutakoa.
- 4) Gaixotasun onkologikoen azterketa eta ikerketarekin lotutako Lehiaketa, Biltzar eta Konferentziak antolatzea.
- 5) Arloan espezializatutako aldizkari eta argitalpenen edizioa.
- 6) Beka, Laguntza eta Sarien sustapena, minbiziaren arloan ikerketa bultzatzera bideratutakoak.
- 7) Minbiziaren espezifikoez bestelako zerbitzu mediko espezializatuak kudeatu eta eskaintzea, zerbitzu horiek garatuz zentroaren osasun-laguntza indartu eta diziplina anitzeko unitateak garatu ahal izateko, herritarren bizi-kalitatea eta osasuna hobetzeko eta Fundazioa indartzeko finantziazioa lortzeko.
- 8) Fundazioaren helburuak betetzeko baliagarriak izan daitezkeen beste hainbat.

4. artikulua. Helburuen garapena

Fundazioak bere helburuak nahi duen bezala garatu ahal izango ditu, eta beste erakunde edo organizazio batzuetan parte hartu ahal izango du, eta Fundazioaren gutunaren, Estatutu hauen edo, edozein kasutan ere, Legeen ondoriozko mugak besterik ez ditu izango.

5. artikulua. Helbidea

Fundazioak honako helbide hau izango du: Doctor Begiristain Pasealekua, 121 zk. - DONOSTIA. Patronatuak libreki erabaki ahal izango du helbide soziala aldatzea, eta Fundazioen Erregistroan jakinarazi beharko du. Era berean, kasuen arabera, fundazioaren helburuak betetzeak eragindako premien arabera finkatzen diren establezimendu, delegazio edo bulegoen egoitza zein izango den zehaztu ahal izango du.

6. artikulua. Lurralde eremua

Fundazioak Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde-eremuan garatuko ditu batez ere bere jarduerak, Gipuzkoako Lurralde Historikoari garrantzi berezia emanez. Hori aparte utzi gabe, eta bere helburuen unibertsaltasuna kontuan izanda, mundu osoko erakunde eta pertsonekin izan ahalko ditu harremanak Fundación ONKOLOGIKOA Fundazioak.

7. artikulua. Onuradunak

Fundazioak, interes orokorreko bere helburuen barruan, objektibotasun- eta inpartzialtasun-irizpideekin jardun beharko du bere onuradunak hautatzeko, inolako diskriminaziorik gabe betiere. Ildo horretan, batez ere Euskadin helbidea duten pertsona fisiko guzti-guztiak izan ahalko dira onuradun, helbidea Euskaditik kanpo duten beste pertsona batzuk ere unean une onuradun izatea aparte utzi gabe.

Indibidualki aurretik zehaztutako pertsonak ez dira ezein kasutan ere onuradun izango. Era berean, Fundazioaren izaeraren beraren ondorioz, onuradunen kopurua mugatu behar bada, horien hautaketa eta zehaztapena atzera bota ezin den moduan egingo du Fundazioaren Patronatuak, izangai guztien merezimenduak, premiak, ahalmen ekonomikoa eta aprobetxamendu-aukera kontuan izanda, edo beste ezaugarri subjektibo batzuei jarraiki. Dena den, inork ezin izango du alegatu, ez indibidualki, ez kolektiboki, Fundazioan edo haren organoetan onura horiek eman aurretik baliatzea, ezta horien esleipena pertsona jakin batzuei inposatu ere.

8. artikulua. Publizitatea

Behin-behineko onuradun eta interesdunek Fundazioaren jardunen berri izan dezaten, Patronatuak bere helburu eta jardueri behar adinako publizitatea emango die.

II. TITULUA

PATRONATUA

1. kapitulua- Osaera eta eskumenak.

9. artikulua. Patronatua

Fundazioa gobernatzeko, administratzeko eta ordezkatzeko goreneko organoa da Patronatua, eta Fundazioaren kudeaketa zuzentzeko eta kontrolatzeko ahalmen guztiak edukiko ditu bere gain, eta ahalmen horiek fundazioaren helburuak betetzeko beharrezkoak izango dira. Hain zuzen ere, Fundazioaren ondarea osatzen duten ondasunak eta eskubideak kudeatuko ditu.

10. artikulua. Osaera eta iraupena

Patrono-karguak lau urteko iraupena izango du gehienez, eta pertsona bera mugagabe berraukeratu ahalko da, salbu eta hurrengo artikuluan ezarritakoa.

11. artikulua. Patronoak izendatzea eta kargu hutsak estaltzea

Patronatuko kideen izendapena edo kargu-uztea, Fundación ONKOLOGIKOA Fundazioaren Patronatuaren erabaki bidez erabakiko da, honako irizpide hauek zorrotz beteta:

- a) Gehienez Zortzi (8) Patrono Fundación Bancaria Kutxa - Kutxa Banku Fundazioaren Patronatuko kide izan behar dute.

Zortzi (8) patrono horien artean Fundación Bancaria Kutxa – Kutxa Banku Fundazioaren Lehendakariak edo Lehendakariordeak egon beharko du.

- b) Patrono bat (1) Fundación Onkologikoa Fundazioaren langileen kolektiboaren ordezkari gisa izendatu ahalko dute.
- c) Lau (4) Patrono Fundación ONKOLOGIKOA Fundazioaren "Erakunde laguntzailatzat" deklaraturako erakunde publiko edo pribatuak ordezkatur izendatu ahalko dituzte, Estatutu hauen 40. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Izendaturako Patronoek indarrean dagoen araudian aurreikusitako formularen baten arabera onartu beharko dute kargua espresuki. Onarpen hori Fundazioen Erregistroan jasoko da.

Heriotzak, ezintasunak, gaitasun-gabetzeak, heriotza-deklarazioak, kanporatzeak, edo bateraezintasunak, agintaldia amaitu izanak, uko egiteak, kargutik kentzeak, edo gobernu-organoko kide baten ordezkartzea edo kargu-uztea eragiten duten beste zirkunstantzia batzuek eragindako lanpostu hutsak prozedura bera erabiliz beteko dira, eta lanpostu hutsaren egoera ezin izango da luzatu 3 hilabete baino gehiago.

Bereziki, betetzen duten kargu publiko edo pribatua dela-eta aukeratuak izan diren patronoek Patronatuan jarraituko dute kargu hori daukaten bitartean, eta haien izendapena eragin zuen kargu publiko edo pribatuan subrogatzen denak ordeztu beharko ditu.

Fundación Bancaria Kutxa - Kutxa Banku Fundazioaren zuzendari nagusia Patronatuaren bileretara joan ahal izango da beharrezkotzat edo egokitzat jotzen duenean, eta bertan hitza izango du baino botorik ez.

12. artikulua. Doakotasuna

Patronatuko kideek beren kargua doan beteko dute. Dena den, beren eginkizunen egikaritzapenak eragindako behar bezala justifikaturako gastuak ordaindu ahalko zaizkie.

13. artikulua. Fundazioaren Lehendakaritza.

Lehendakari kargua edukiko du, Fundación Bancaria Kutxa – Kutxa Banku Fundazioaren Lehendakaria izateagatik Patronatuko kidea denak.

Lehendakariak kalitate-botoa izango du berdinketak hausteko Patronatuak eztabaidatzen dituen erabakiei buruzko bozketetan.

Patronatuaren Lehendakariak izango du gobernu-organo horretako gorenko ordezkartza, eta aipaturako organoaren kideari atxikitako eta Estatutu hauek berari esleitutako ahalmenez gain, Patronatuaren eta Fundazioaren beste organo batzuetatik eratorritako erabakietako egintza eta kontratu guztietan Fundazioa ordezkatu beharko du, baita sortzen diren auzietan, espedienteetan, administrazioko, gobernuko, judizio bidezko, eta judizioz kanpoko gaietan ere, eta horretarako Prokuradorei edo Abokatuei ahalordeak eman ahal izango dizkie.

14. artikulua. Lehendakariordetza

Lehendakariorde kargua edukiko du, Fundación Bancaria Kutxa – Kutxa Banku Fundazioaren Lehendakariordea izateagatik Patronatuko kidea denak.

Presidentea ez badago, gaixorik badago edo kargua hutsik badago, haren funtzioak lehendakariordeak hartuko ditu bere gain, eta, bestela, Patronatuko kiderik zaharrenak.

15. artikulua. Idazkaritza

Patronatuak Idazkari izendatuko du, Patronatuko kidea izango ez dena, Fundación Bancaria Kutxa – Kutxa Banku Fundazioaren idazkari-kargua duena.

Patronatuak idazkariorde izendatuko du, Patronatuko kidea izango ez dena, Fundación Bancaria Kutxa – Kutxa Banku Fundazioaren idazkariorde-kargua duena.

Idazkaria ez badago, gaixorik badago edo kargua hutsik badago, haren funtzioak idazkariordeak hartuko ditu bere gain, eta, halakorik ezean, Patronatuak, erabaki bidez, Fundazioko langile bat gaitu ahal izango du aldi baterako, idazkari-funtzioak bete ditzan.

16. artikulua. Zuzendaritza Kudeatzailea

Patronatuak Zuzendari Kudeatzaile bat izendatuko du, eta Patronatuak hartutako erabakien jarraipena egitea eta erabaki horiek betetzea aginduko zaio. Agindu hori ondo bideratzeko, egiteko hori betetzeko beharrezkoak diren giza baliabide eta baliabide materialak izan beharko ditu.

Izendatzen dutenean bestelakorik zehazten ez bada, honako oinarrizko eginkizun hauek beteko ditu Zuzendari Kudeatzaileak, Patronatuaren esanbidezko erabaki bidez:

- a) Fundazioaren giza baliabideak kudeatzea (Patronatuak onartutako plantillaren barruan), eta indarrean dauden lan-arauen betetzea zaintzea.
- b) Fundazioaren berezko xedeaosatzen duten jarduera guztien funtzionamendua Patronatuaren jarraibide eta planen arabera koordinatu eta kontrolatzea, kudeaketan eraginkortasun-maila handia lortzeko.
- c) Patronatuak onartu beharreko jardun-planak, finantza-planak, aurrekontuak, finantza-partaidetza kudeatzeko protokoloa, txostenak eta memoriak prestatzea.

- d) Patronatuak eta/edo batzordeek aztertzeke jarri behar diren erabakiak aztertu eta prestatzea.
- e) Patronatuaren eta/edo batzordeen erabakiak betearaztea.
- f) Fundazioaren zerbitzuen antolamendu onerako eta funtzionamendu eraginkorrerako bidezko hartzen dituen aginduak eta instrukzioak ematea, barne-zerbitzuak antolatzea eta Fundazioaren dependentzia, bulego eta zerbitzu guztiak, oro har, ikuskatu eta zaintzea, Patronatuaren ordezkari iraunkor gisa.
- g) Fundazioaren kontabilitatea antolatzea.
- h) Patronatuari informazioa ematea eta bidezko hartzen dituen proposamen guztiak helaraztea.
- i) Patronatuari, urte bakoitzaren lehen seihilekoan, kontuak formulatzeko eta emaitzak aplikatzeko proposamena aurkeztea, hark onar dezan.
- j) Patronatuak eskuordetzen edo ahalordetzen dion beste edozein ahalmen erabiltzea.

Zuzendari Kudeatzailearen izendapenak iraupen mugagabea izango du, Patronatuak hura edozein unetan, ebazpen arrazoituaren bidez, kargutik kentzea erabakitzeke aukera aparte utzi gabe.

Bere eginkizunak hobeto betetzeko, Zuzendari Kudeatzailea bertaratu egingo da, ahotsarekin eta botorik gabe, Patronatuak egiten dituen bilkura guztietara, non eta patronatuak berak zehazki beste gauzaren bat erabakitzen ez badu.

17. artikulua. Fundazioaren zerbitzura dauden bestelako langileak

Era berean, Patronatuak agindu ahal izango dio gobernu-organoaren kideren bati edo hirugarren pertsona bati fundazioaren izenean kudeaketa egitea edo beste jarduera batzuk egitea, eta beteko dituen eginkizunei dagokien ordainsaria emango dio.

Bereziki, Patronatuak Letratu Aholkulari bat izendatu ahalko du eta hari agindu ahalko zaizkio Fundazioaren aholkularitza juridiko orokorreko egitekoak, Patronatuak hartu beharreko erabakien kontrol juridikoa eta Idazkariarekin izan beharreko lankidetzaren Akten Liburua zaindu eta eramateko lanetan, eta horretako organo horren bilkuretara bertaratu ahalko da, organoaren esanbidezko gonbidapenaren bidez.

18. artikulua. Patronatuaren eskumenak

Patronatuak fundazioaren ordezkari izango du eta Fundazioaren helburuak betetzeko beharrezkoak diren ahalmen guztiak egikaritzeko ditu. Zehazki:

- a) Fundazioaren orientazioa adieraztea, dauzkan helburuak hobeto betetzeko.
- b) Baliabide ekonomiko eta finantzario guztiak administratzea, horien jatorria edozein dela ere.

- c) Aurreko ekitaldiko Inbentarioa, Egoera Balantzea, Emaizta Kontua, Memoria, eta aipatutako denboraldiko diru-sarreraren eta gastuen aurrekontuaren likidazioa onartzea.
- d) Hurrengo ekitaldiaren diru-sarrera eta gastuen Aurrekontua onartzea, baita azalpen-memoria ere.
- e) Barne-erregimeneko arau egokiak onartzea.
- f) Batzorde Delegatuak eratzea, horietako kideak izendatzea eta horien ahalmenak zehaztea, eta ahalordetze orokorrak edo bereziak ematea hurrengo artikuluan ezarritakoaren arabera.
- g) Fundazioaren zuzendaritza-kargu eta kargu exekutiboen izendapenak onartzea.
- h) Fundazioaren helburuak hobekien betetzeko edozein motatako egintzak eta kontratuak formalizatu eta onartzea, kontratu horiek zibilak, merkataritzakoak, lanekoak, administraziokoak, edo beste edozein motatakoak badira ere.
- i) Erakunde eskudunei dagozkien proposamenak aurkeztea goragoko erabakia behar duten gaietarako.
- j) Elkarlan teknikoko eta langile gaituen prestakuntzako programetan enpresa, erakunde, organismo edo partikularren parte-hartzea sustatzea, funtsen ekarpenaren eta lankidetzaren hitzarmenen bidez.
- k) Jaraunspenak, legatuak, edo dohaintzak onartzea edo baztertzea, betiere Fundaziorako egokitzat jotzen badituzte, Babesletzari jakinarazita.
- l) Fundazioaren Estatutuak aldatzea, sortzailearen nahia hobeto betetzeko beharrezkoa bada.

19. artikulua.- Delegazioak, ahalordetzeak, Batzorde Delegatuak eta Ohorezko Patronoa.

Bere kide batean edo hainbatetan delegatu ahalko ditu Patronatuak bere ahalmen guztiak, edo batzuk, honako hauek izan ezik: urteko kontuak eta aurrekontuak onartzea, kudeaketa arruntetik kanpo dauden ekintzak edo Babesletzaren baimena behar dutenak, baita aplikatzekoa den araudiak ezartzen duen beste edozein.

Goragoko paragrafoan adierazitako mugak kontuan izanik, Batzorde Delegatu eta Betearazleak eratu ahalko ditu Patronatuak, kasu bakoitzean zehazten diren ahalmenekin, hala nola ahalordetu orokorrak edo bereziak izendatzea, eginkizun mankomunatu edo solidarioak dituztela.

Delegazio eta ahalordetze orokorrak eta horien baliogabetzeak Fundazioen Erregistroan jaso beharko dira.

Patronatuak "Ohorezko Patronoak" izendatu ahal izango ditu. Ohoregarri hori jasotzeko merezimenduak egiten dituzten Patronatuak hautatutako pertsonak izendatuko dituzte Fundación Onkologikoa Fundazioaren "Ohorezko Patronoaren" ohorezko tituluarekin, dela ekarpen nabarmena egin dutelako azken urteetan fundazioaren helburua lortzeko, dela fundazioarekiko egin duten ekarpen pertsonalak garrantzi handia izan duelako.

Ohorezko Patronoak Patronatuaren bileretara/bilkuretara bertaratu ahal izango dira eta bertan hitz egiteko eta aztertzen diren gaiei buruzko iritzia emateko eskubidea izango dute, baina ez dute inolako kasutan boto-eskubiderik izango. Edonola ere, Ohorezko Patronoak Patronatuko gainerako kideen jardun-arau berberetara lotuta egongo dira.

Ohorezko Patronoaren kargua doakoa izango da eta biziarteko izaera izango du, salbu eta Patronatuak kargugabetzea erabakitzen badu edo Ohorezko Patronoak zuzenbidean onartutako edozein bitarteko baliatuz dimisioa aurkezten badu.

20. artikulua. Patronatuaren betebeharrak

Honako betebeharrak dituzte Fundazioaren Patronatuko kideek:

- a) Fundazioaren helburuak zorrotz bete eta betearaztea, Legean eta Fundazioaren Estatutuetan ezarritakoaren arabera.
- b) Fundazioaren ondarea osatzen duten ondasunak eta eskubideak administratzea, eta horien produktibitateari osorik eustea, kudeatzaile on baten irizpide ekonomiko eta finantzarioen arabera.
- c) Kargua legezko ordezkari bati dagokion ardurarekin betetzea.

21. artikulua. Autokontratazioaren debekua

Patronatuko kideek ezin izango dute fundazioarekin kontraturik egin, beren izenean, edo hirugarren baten izenean dela ere, salbu eta Babesletzak horretarako baimena ematen badu.

22. artikulua. Erantzukizuna

Patronatuko kideak erantzule dira Fundazioaren aurrean, Legeek zehaztutakoaren arabera.

Erantzukizuna eragin zuen erabakiaren aurka zeudenek, edo erabaki hori hartzen parte hartu ez zutenek ez dute erantzukizunik izango, salbu eta erabakia ezagutzen zutela eta beren desadostasuna adierazi ez zutela egiaztatzen bada.

Gobernu-organoei eskatzen zaien erantzukizun-egintzaren egikaritzapena (jurisdikzio arruntaren aurrean) eta dagokion epai irmoa Fundazioen erregistroan jaso beharko dira.

Babesletzak, bere ekimenez, edo legezko interesa duenaren arrazoizko eskaeraren bidez, aipatutako erantzukizun-egintza bete ahal izango du. Patronatuko kideen jarduna fundazioaren helburuak betetzeko aurkakoa edo kaltegarria bada, sortzaileak ere egikaritu ahal izango du.

2. kapitulua. Patronatuaren funtzionamendu-erregimena

23. artikulua. Barne-funtzionamendua

Gutxienez hiru hilean behin bilera bat egingo du Patronatuak, hau da, lau (4) bilera urtean. Patronatuak urte bakoitzeko lehenengo sei (6) hilabeteetan bildu beharko du aurreko ekitaldiko Aurrekontuaren likidazioa, Inbentarioa, Jarduera-Memoria, eta aurreko ekitaldiko Egoera-Balantzea eta Emaizta-Kontua onartzeko, Estatutu hauetako 29. artikuluan aurreikusitakoaren arabera. Era berean, dagokion deialdia egin aurretik, laugarren hiruhilekoan onartuko da hurrengo ekitaldiko Aurrekontua, Babesletzari abenduaren 31 baino lehen igortzeko.

Patronatuaren bilkurak ohikoak eta ezohikoak izan daitezke.

Patronatuak bere funtzioak eraginkortasunez betetzeko beharrezkoa den maiztasunarekin egingo ditu bilkura arruntak, eta gutxienez hiru hilean behin, presidenteak deialdia egin ondoren.

Patronatua presidenteak edo haren ordezkariak beharrezkotzat hartzen duenean edota kideen herenek idatziz eta aztertu beharreko gaiak zehatz-mehatz adieraziz eskatzen dutenean bildu ahal izango da. Deialdia egiteko betebeharra presidentearen ustez premia egiaztatua dagoenean eta bilera Patronatuaren eskumeneko arlo garrantzitsuei lotuta dagoenean baino ez da izango.

Deialdia egiteko eskatzen den kasuan, Patronatuko presidenteak lau (4) egun balioduneko gehieneko epean egingo du bilkurarako deialdia, eta bilkura deialdia egin eta hogeita lau (24) orduko hirurogeita hamabira (72) bitarteko tartean egingo da. Gai-zerrendan, eskaera osatzen duten eta presidentearen ustez premiazkoak diren eta Patronatuaren eskumeneko arlo garrantzitsuei lotuta dauden gaiak sartuko dira.

Patronatua, halaber, izaera unibertsalez bildu ahal izango da patrono guztiak bertaratuta edo ordezkatuta egonik aho batez ezohiko bilkura egitea erabakitzen dutenean (aho batez ezartzen duten gai-zerrendarekin).

Deialdia posta elektronikoki bidez edo jaso dela adierazteko aukera emango duen beste edozein baliabideren bidez egingo da. Bertan, bileraren lekua, eguna, ordua eta gai-zerrenda adieraziko dira, eta dagokion dokumentazioa erantsiko zaio.

Ohiko bilkuretarako deialdia lau (4) egun baliodun aurretik egin beharko da gutxienez. Ezohiko bilkuren kasuan, berriz, deialdia baliozkoa izango da gutxienez hogeita lau (24) ordu lehenago egiten bada, aurreko artikuluan izaera unibertsaleko bilerei dagokienez ezarritakoa aparte utzi gabe.

Deialdiaren eta patronoei eman beharreko edozein komunikazioren ondorioetarako, patronoak kargua onartzen duenean Fundazioari ematen dion helbide elektronikoa erabiliko da, eta, horri dagokionez aldaketarik izanez gero, Fundazioari jakinarazi beharko zaio.

Bilerak helbide sozialean egingo dira, baina presidenteak erabakitzen duen beste lekuren batean ere egin ahal izango dira.

Gainera, bilkurak hainbat lekutan egin ahal izango dira aldi berean, betiere ikus-entzunezko edo telefono bidezko baliabideekin leku horiek denbora errealean elkarrekin jarduteko eta komunikatzeko aukera, eta, beraz, egintzaren batasuna ziurtatzen bada. Kasu horretan, konektatzeko sistema eta, hala badagokio, bileran egoteko eta parte hartzeko baliabide teknikoak eskuragarri dauden lekuak jasoarazi beharko dira deialdian. Erabakiak presidentea dagoen lekuan hartu direla ulertuko da.

24. artikulua. Eratzea eta erabakiak hartzea

Patronatua baliozko moduan eratuko da lehenengo deialdian bertako kideen erdia bileran badago, pertsonalki edo ordezkaritza bidez.

Aurreko paragrafoan adierazitako quorumik ez badago, Patronatua ordubete geroago bilduko da, eta bigarren bilera horretan kide kopuruak ez dio axolarik, gutxienez hiru biltzen badira, eta betiere Lehendakaria eta Lehendakariordea bertan badaude.

Aurreko paragrafoetan adierazitakoa alde batera utzita, Patronatua deituzat hartuko da, eta baliozko moduan eratutzat joko da Patronatuko kide guztiak bileran badaude, eta aho batez onartzen badute bilera hori egitea.

Erabakiak botoen gehiengoaren arabera hartuko dira, salbu eta honako kasu hauetakoren bat bada:

- a) Aldatzeko, fusionatzeko eta azkentzeko erabakia, bertaratuen bi herenen aldeko botoa beharko duena.
- b) Estatutu hauetan botaziorako quorum ezberdina ezarrita daukan beste edozein erabaki.

Lehendakariaren botoak gerta daitezkeen berdinketak hautsiko ditu.

Patronatuko bilera bakoitzeko akta egingo du Idazkariak, eta bilera egin den lekua eta eguna zehazteaz gain, bertaratuak, eztabaidatu diren gaiak, eta hartutako erabakien edukia ere aipatuko dira.

III. TITULUA

ONDAREA ETA ERREGIMEN EKONOMIKOA

1. kapitulua. Osaera, administrazioa eta zaintza.

25. artikulua. Fundazioaren ondarea

Balorazio ekonomikoa izan dezaketen edozein motatako ondasunek eta eskubideek osatu ahal izango dute Fundazioaren Ondarea.

Xedapen- eta administrazio-egintzei dagokienez, aplikatuko dituen arauen arabera jokatu du Fundazioak, eta lortzen dituen emaitzak edo errentak bere helburuetarako erabiliko ditu, eta hori guztia Estatutu hauen arabera.

26. artikulua. Baliabideak

Honako hauek osatuko dute Fundazioaren ondarea:

- a) Fundazioaren eskrituran bildutako hasierako zuzkidura.
- b) Edozein administrazio publiko edo erakunde pribaturekin ezartzen diren Hitzarmenen ondoriozko diru-sarrerak.
- c) Fundación Bancaria Kutxa – Kutxa Banku Fundazioak esleitzen dizkion Gizarte-Ekintzatik datozen diru-sarrerak.
- d) Fundazioak egiten dituen jardueren ondoriozko diru-sarrerak, baita eman ditzakeen zerbitzuen ordainsariak ere, indarrean dagoen legeriaren arabera.
- e) Zuzenbidean onartutako baliabideen bitartez, aurrerantzean eskuratzen den beste edozein ondasun edo eskubide; eta bereziki, beste pertsona, organismo eta erakundeek ematen dizkioten legatu, dohaintza, diru-ekarpen eta diru-laguntzen arabera. Dohaintza, legatu eta jaraunspenen onarpena Babesletzari jakinarazi beharko zaio.
- f) Bere ondarearen ondoriozko emaitza edo errentak, produktu edo mozkinak.
- g) Beste edozein baliabide legezko aplikazio-esparruaren barnean.

27. artikulua. Fundazioaren Ondarearen zaintza

Fundazioaren ondarea zaintzeko eta babesteko honako arau hauek bete beharko dira:

- a) Fundazioaren ondarea osatzen duten ondasunek eta eskubideek fundazioaren izenean egon beharko dute, eta fundazioko Inbentarioan azaldu beharko dute, eta hala badagokio, dagozkien Erregistroetan jaso beharko dira.

- b) Ondasun higiezinak edota eskubide errealak Fundazioaren izenean jasoko dira Jabetza Erregistroan.
- c) Baloreak eta dirua, jabetza-tituluak, gordailaketaren frogagiriak, eta jabetza-, edukitze-, erabilera- eta baliatze-eskubideen egiaztagiriak, edo Fundazioak eduki dezakeen beste edozein eskubideren egiaztagiriak Patronatuak zehazten duen erakundean gordailatuko dira Fundazioaren izenean.
- d) Patronatuak zehazten duen moduan zainduko dira gainerako ondasunak.

2. kapitulua- Erregimen ekonomikoa

28. artikulua. Ekitaldi ekonomikoa

Ekitaldi ekonomikoa urtebetekoa izango da eta urte naturalarekin uztartuko da.

Ekitaldi ekonomiko bakoitzeko aurrekontu arrunta egingo du Fundazioak, eta aurrekontu horretan diru-sarrerak eta gastuak bilduko dira modu orekatuan.

Aipatutako Aurrekontua Babesletzari aurkeztuko zaio onartu den urtearen azken hiruhilekoan, azalpen-memoriarekin batera.

29. artikulua. Betebehar ekonomikoak eta kontabilitate-betebeharrak

Inbentarioa, Egoera-Balantzea, eta Emaitzen Kontua egingo ditu Patronatuak, eta horietan Fundazioaren ondarearen, ekonomiaren eta finantzen egoerak azalduko ditu, urtean egindako jardueren memoriarekin batera, baita ondarearen ekonomia-kudeaketa ere, fundazioaren helburu eta legezko aginduen betearazpena jakinarazteko eta justifikatzeko. Era berean, aurreko urteko diru-sarreraren eta gastuen aurrekontuaren likidazioa egingo du, eta horretarako Legearen xedapenek agindutakoa beteko du.

30. artikulua. Kontuak ematea

Urte bakoitzeko lehenengo sei hilabeteen barnean, Patronatuak, indarrean dagoen araudian aurreikusita dagoen moduan, Babesletzaren aurrean egiaztatu beharko du egin duen kudeaketa-lana egokia izan dela fundazioaren helburuak betetzeko.

3. kapitulua - Fundazioaren helburua lortzeko baliabideak aplikatzeko arauak.

31. artikulua. Administrazioko diru-sarrera eta gastuen zertarakoa

- a) Fundazioaren ondasunak eta errentak zuzenean eta berehalakoan fundazioko helburuak betetzeari atxikitzen joko dira.
- b) Fundazioak aldian-aldian programatuko ditu bere helburua lortzeko berezko jarduerak, eta horretarako, urteko prestazioen plangintza egingo da, eta nola egin eta nori eman adostuko da.

- c) Dituen helburuak betetzeko, helburua lortu eta handik hiru urteko epean, errenta gordinen % 70a emango da, gutxienez, baita beste edozein kontzepturengatik lortzen diren beste diru-sarrera batzuk ere, eta hala badagokio, kontzeptu horiei dagozkien zergak kenduko zaizkie.

Ondarearen diru-ordain kontzeptuan ematen diren diru-ekarpenek —bai ondarea eratzen denean, bai geroago emandakoek— ez dute gorago adierazitako baldintza bete beharko.

Administrazio-gastuak kendu ondoren geratzen diren diru-sarrerak fundazioaren hornidura gehitzeko erabiliko dira, eta gastu horiek ez dute % 20a gaindituko, salbu eta Fundazioak arrazoituta eskaeraren eraginez Babesletzak emandako esanbidezko baimena badago, indarrean dauden legezko xedapenetan eta arauetan aurreikusitakoaren arabera.

32. artikulua. Kontu-auditoria

Fundazioaren garrantzi ekonomikoa kontuan izanda, eta indarrean dagoen araudian ezarritakoaren arabera, peritu independenteen kanpo-fiskalizazioaren azterketapean jarri beharko ditu bere kontuak urtero, kontu-auditoria bat eginez indarrean dagoen legerian aurreikusita dagoen moduan.

Auditoreek ematen duten txostena Eusko Jaurlaritzaren Fundazioen Erregistroan utzi beharko da, txostenak aipatzen dituen kontuekin batera.

IV. TITULUA

ALDAKETA, FUSIOA ETA AZKENTZEA

33. artikulua. Aldaketa

Patronatuaren Fundazioak Estatutu hauek aldatzea bultzatu ahal izango du, betiere komenigarria bada fundazioaren helburuak hobeto betetzeko. Aldaketa-erabakia patronatua osatzen duten kideen bi herenen aldeko botoarekin hartu beharko da, gutxienez.

34. artikulua. Fusioa

Beste erakunde batekin edo beste batzuekin fusionatzea ere erabaki ahal izango du Patronatuak, betiere fundazioaren helburuari behar bezala erantzuten bazaio. Arrazoituta hartuko da erabakia, Patronatuko kideen bi herenen aldeko botoarekin, gutxienez.

35. artikulua. Azkentzea

Honako kasu hauetan azkenduko da Fundazioa

- a) Indarrean dagoen legerian aurreikusitako kausaren bat gertatzen bada.
- b) Fusio-prozesuaren ondorioz horrela gertatzen bada.
- c) Ebazpen judizial irmo bidez desegiten bada.

36. artikulua. Azkentze-prozedura

Aurreko artikuluko a. eta b. idatz-zatietan aurreikusitako kasuetan, Fundazioaren azkentzeak Patronatuaren erabakiaz gain, Babesletzaren berrespena beharko du.

Nolanahi ere, azkentzeko erabakia arrazoitu egingo da, eta ondarearen egoera eta likidazio-programa zein diren adieraziko da.

Gobernu Organoaren erabakirik ez badago, edo Babesletzak erabaki hori berresten ez badu, Fundazioaren azkentzeak ebazpen judizial arrazoitua beharko du, eta hala badagokio, Babesletzak edo fundazioaren Organoak eskatu ahal izango du.

Azkentze-erabakia edo, hala badagokio, ebazpen judizial arrazoitua, Fundazioen Erregistroan jasoko da.

37. artikulua. Likidazioa

Fundazioaren likidazioaren ondorioz lortzen diren ondasunak eta eskubideak, fundazioaren eskrituran adierazten den sortzailearen borondatearen arabera, Patronatuak erabakitzen dituen interes orokorreko helburuak betetzeko izango dira, dagokion espirituari jarraiki. Patronatuak hori egiten ez badu, Fundazioen Babesletzak azkendutakoaren antzeko helburuak dituzten beste fundazio batzuetara bideratuko ditu, helbide soziala udalerrri berean dutenetara edo, bestela, Lurralde Historiko berean dutenetara.

V. TITULUA

BABESLETZA ETA FUNDAZIOEN ERREGISTROA

38. artikulua. Babesletza

Fundazio hau Babesletzaren tutoretzapean, aholkularitzapean, eta kontrolpean egongo da, indarrean dauden Legeetan aurreikusitakoaren arabera.

39. artikulua. Fundazioen Erregistroa

Fundazio honen eraketa, baita legeak hala agintzen dituen fundazioaren egintza edo negozio juridiko guztiak ere, Legearen arabera eskuduna den Fundazioen Erregistroan jasoko dira.

VI. TITULUA

FUNDAZIOAREN LAGUNTZAILEEN ERREGIMEN JURIDIKOA

40. artikulua. Erakunde Laguntzaileak

Fundazioaren Eskritura sinatu ondoren, pertsona fisikoak edo juridikoak atxiki ahal izango zaizkio fundazioari erakunde laguntzaile gisa, betiere adierazitako pertsona horien jarduerak fundazioaren helburua lortzen lagunduko badu.

Erakunde Laguntzaile gisa egindako atxikimendu-eskaerak Patronatuko kideen gehiengo absolutuak onartu beharko ditu, eta Patronatuak finkatuko ditu halaber izangaiek, hala badagokio, bete beharreko ekarpen ekonomikoa, Erakunde Laguntzailearen eskubide eta betebeharrak, baita, kasuan kasu, onespren horren iraupena eta indarraldia ere. Erakunde Laguntzaile horiek Fundazioaren Patronatuan parte hartu ahalko dute, ildo horretan Patronatuak hartutako erabakiaren ondoren.

Erakunde horrek Erakunde Laguntzaile gisa duen onspena edozein unetan etetea edo amaitzea erabaki ahalko du Patronatuak.

Estatutu hauek FUNDACION ONKOLOGIKOA FUNDAZIOAK 2016ko ekainaren 29ko Patronatu-Batzordean eta EUSKO JAURLARITZAKO Herri Administrazio eta Justiziako Sailburuak 2016ko irailaren 19an emandako Aginduz onartuak izan dira.